



IRAKASKUNTZA-GIDA 2023/24

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztugabea

IRAKASGAIA

25054 - Sexualitatearen Psikologia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Sexualitatearen psikologia hautazko den 6 kredituko irakasgaia da, eta hezkuntza psikologiaren minorraren barnean kokatzen da.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Giza erantzun sexualaren eredu psikologiko nagusienak ezagutzea.
2. Identitatearen eraikuntzan sexuazioaren efektua ezagutzea eta bere nahasteen ulermenean sexu- eta genero-identitatearen ezagutza aplikatzea.
3. Sexu-desiraren, eta berari lotutako afektu eta emozioen, egitura ezagutzea, hala nola bere adierazpen psikologikoa.
4. Giza-sexualitatearen alorreko esku-hartze eskaerak detektatzeko gai izatea.
5. Sexualitatearen Psikologia alorreko ebaluazio-tresnak erabiltzeko gai izatea.
6. Prebentzioko, hezkuntzako, orientazioko eta osasunaren promozioko esku-hartze programak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gai izatea.
7. Diziplinarteko taldeetan lan egiteko gai izatea.
8. Txosten teknikoak, ahoz zein idatziz, egiteko gai izatea.
9. Psikologoaren funtzio eta ardura etikoak ezagutzea giza sexualitatearen alorrean.
10. Sexualitatearen psikologiari dagokion iturri dokumentalak erabiltzeko gai izatea, eta informazioaren sarbiderako beharrezko estrategiaren menperaketa erakustea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

- 1.gaia. Ikuspegi historikoa eta kontzeptu-oinarriak.
- 2.gaia. Sexualitatearekiko jarrerak.
- 3.gaia. Sexuazio-prozesua eta identitatea.
- 4.gaia. Desira sexuala.
- 5.gaia. Afektuak eta sexualitatea.
- 6.gaia. Haurren eta nerabeen sexualitatea.
- 7.gaia. Giza erantzun sexuala.
- 8.gaia. Sexu aholkularitza eta heziketa.

METODOLOGIA

Irakasgaiak 30 ordu magistralak ditu, 13 ordu tailerrak, 15 ordu gelako praktikak eta 2 orduko mintegia. Eskola magistraletan irakasleriak eduki teorikoa azalduko du. Praktika orduen edukia jarduera desberdinetan banatzen da: identitatea, jarrerak, atxikimendua eta afektua, desira eta orientazioa, erantzun sexuala, heziketa sexuala eta kasu klinikoaren azterketa.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	2	15				13		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45	3	22,5				19,5		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 5
- Test motatako proba % 60
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 35

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Sexualitatearen Psikologiaren ebaluaziorako bi modalitate ezberdin daude: a) ebaluazio mistoa eta b) azken ebaluazioa.

- a) Ebaluazio sistema mistoa
Irakasgaiaren ebaluazio mistoa bi kalifikazio ezberdinez osatzen da:
- Gelako praktiken eta tailerren ebaluazio jarraiak, notaren % 35 balioko du.



- Azken froga eduki teorikoari buruzkoa izango da eta notaren % 65 balioko du. Galdera ireki batez (notaren % 5) eta test motako 30 galderez (notaren % 60) osatuta egongo da. Test motako galderek lau erantzun-aukera izango dituzte; erantzuna okerra bada, bere balorearen herena kenduko zaio.

b) Azken ebaluazio sistema

Ikasleriak irakasgaiaren eduki teoriko eta praktikoko guztien azken ebaluazioaren bidez ebaluatzeko eskubidea izango du, ebaluazio mistoan parte hartu duenentz kontuan hartu gabe. Modalitate honek notaren % 100 balioko du. Modalitate honetan, praktiken eta tailerren ebaluazioa ere (notaren % 35) azken azterketan egingo da, galdera irekien eta test moduko galderen bidez.

Bi modalitateetan, azken nota atal teorikoko eta atal praktikoko kalifikazioen batura izango da, eta batura egin ahal izateko biak gainditu behar dira. Ohiko deialdian ataletako bat bakarrik gainditzen bada (teorikoa edo praktikoa), kalifikazio hori ezohiko deialdirako gordeko da, baina ez hurrengo ikastaroetako deialdietarako.

Ohiko deialdiari uko egitea: azterketaren egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak dagokion deialdiari automatikoki uko egitea ekarriko du.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Deialdi honetan azterketa bakarra egingo da, irakasgaiaren eduki teoriko (% 65) eta praktikoen (% 35) galderekin osatua. Azterketa honek emaitzaren % 100 balioko du.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Gómez-Zapiain, J. (2013). Psicología de la sexualidad. Alianza.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Alonso, I. eta Gallarin, M. (Arg). (2009). Generoa aztergai psikologian: egungo ikerketak. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Crooks, R., Baur, K. eta Widman, L. (2021). Our Sexuality. Cengage.
- Dess, N. K., Marecek, J. eta Bell, L. C. (2018). Gender, sex, and sexualities : psychological perspectives. Oxford University Press.
- Gómez-Zapiain, J. (2009). Apego y sexualidad: entre el vínculo afectivo y el deseo sexual. Alianza.
- Lehmiller, J. J. (2018). The Psychology of Human Sexuality (2. ed.). Wiley Blackwell.
- LeVay, S., Baldwin, J. I. eta Baldwin, J. D. (2018). Discovering human sexuality (4. ed.). Oxford University Press.
- López, F. (2009). La educación sexual (2. ed.). Biblioteca Nueva.
- Peterson, Z. D. (2017). The Wiley handbook of sex therapy. Wiley & Sons.
- Rathus, S. A., Nevid, J. S. eta Fichner-Rathus, L. (2005). Sexualidad Humana (6. ed.). Pearson-Prentice Hall.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Becerra-Fernández, A. (2003). Transexualidad. La búsqueda de una identidad. Díaz de Santos.
- Constantini, E., Villari, D. eta Filocamo, M. T. (2017). Female sexual function and dysfunction. Springer.
- Gómez-Zapiain, J. (2018). Apego y terapia sexual: aportaciones desde la teoría del apego. Alianza.
- Hyde, J. S. eta Delamater, K. (2020). Understanding human sexuality. (14. ed.). McGraw Hill.
- López, F. (2002). Sexo y afecto en personas con discapacidad. Biblioteca Nueva.
- López, F. (2009). Amores y desamores: procesos de vinculación y desvinculación sexuales y afectivos. Biblioteca Nueva.
- López, F. (2012). Sexualidad y afectos en la vejez. Pirámide.
- López, F. (2014). Los abusos sexuales a menores y otras formas de maltrato sexual. Síntesis.
- López, F. (2015). Ética de las relaciones sexuales y amorosas. Pirámide.

Aldizkariak

- Anuario de Sexología.
- Archives of Sexual Behavior.
- Attachment & Human Development.
- Culture Health & Sexuality.
- International Journal of Sexual Health.
- Journal of the History of Sexuality.
- Journal of Homosexuality.
- Journal of Sex Research.
- Journal of Social and Personal Relationships.
- Psychology & Sexuality.
- Revista desexología.
- Sexual and Relationship Therapy.
- Sexual Health.
- Sexualities.
- Sexuality and Disability.
- Sexuality Research and Social Policy.



Interneteko helbide interesgarriak

AEPS: Asociación Estatal de Profesionales de la Sexología (www.aeps.es)
AESC: Asociación Española de Sexología Clínica (www.aesc.com.es)
Centro de documentación sobre prevención y maltrato infantil y adolescente: Infoabu (www.bienestaryproteccioninfantil.es)
FESS: Federación Española de Sociedades de Sexología (www.fess.org.es)
SEISEX: Sociedad Española de Intervención en Sexología (www.seisex.com)
SIECUS: Sexuality Information and Education Council of the United States (www.siecus.org)
WAS: World Association for Sexual Health (www.worldsexology.org)

OHARRAK

COVID-19 egoerak ebaluazio ez-presentzial bat egitera behartzen badu, azken azterketa eGelan egingo da online galdetegi baten bidez, azaldutako irizpideen arabera, eta bideokonferentziaz argituko dira ebaluazioa egitean sor daitezkeen zalantzak.

Ebaluazio probak egiten diren bitartean, ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, baita telefono, elektronikak, informatika edo bestelako aparatu edo gailuak ere.